

Gure hiztegiak salatzen dituen itsasoko teknika iturriak

(Sources of various marine technique manifested by
our lexicon)

Peillen, Txomin
Eusko Ikaskuntza
Fac. Pluridisciplinaire
29-31 cours du Comte de Cabarrus
F-64100 Baiona

BIBLID [1137-442X (2002), 21; 237-252]

Euskal itsas hiztegiak erakusten digu euskaldunak berandutxo sartu zirela arrantza lanean. Itsasertza lapurren gatik arriskutsua, itsasoaren gatik hiltzailea zelako basamortua zen. Hasieran ontzizintza Baiona -ko gaskoiek garatu zuten, gaskoierazko hitzak gure oinarritzko hiztegiari emanaz; gero Europako teknikekin hitzak batikbat penintsulatik mailegatuko dira. Arrain izen gehienak erromanikoak ditugu. Hegoaldean, arrantzale berriak eraldidun herrietatik ekarri zituztelako. Bestalde mailegu batzuk haizeez, uhinez, arkaitez hizkuntza debekuak erakusten dizkigute. Hiztegi horrek, bestalde historiak darakusa, XV. mendetik goiti eus -kaldunak Atlantiko Ozeano aldeko itsas kultura baten kide direla.

Giltza-Hitzak: Teknika mailegu. Hizkuntza mailegu. Itsasontzizintza. Arrantzaren teknikak. Arrainen ize -nak. Kanpotiar arrantzaleak. Gaskoikiak. Galiziatarrak.

Los extractos del léxico marítimo vasco muestran que, por razones de inseguridad de los elementos, de la piratería, los vascos empezaron a pescar muy tarde. Los gascones de Bayona, primeros constructores de barcos, nos dieron técnicas y un vocabulario básico, y luego aprendimos técnicas y vocabulario de Europa occidental. Los ictiónimos son mayoritariamente castellanos debido a una reciente repoblación hispanófila. Algunos tabúes explican los extractos del léxico (vientos, olas, rocas). Nuestros marineros participan de una cultura común en toda la fachada atlántica europea.

Palabras Clave: Extractos técnicos. Extractos del léxico. Construcción naval. Evolución de la pesca. Nombres de peces. Marineros alógenos. Gascones. Gallegos.

Les emprunts du lexique maritime basque montrent que pour des raisons d'insécurité des éléments, de la piraterie, les Basques se mirent tardivement à la pêche. Les Gascons bayonnais, premiers constructeurs de bateaux, nous donnèrent techniques et vocabulaire basique, puis nous apprîmes techniques, vocabulaire de l'Europe occidentale. Les ichtyonimes sont en majorité castillans à cause d'un repeuplement hispanophone récent. Des tabous expliquent les emprunts lexicaux (vents, vagues, rochers). Nos marins participent d'une culture commune à la façade atlantique européenne.

Mots Clés: Emprunts techniques. Emprunts lexicaux. Construction navale. Évolution de la pêche. Noms de poissons. Marins allogènes. Gascons. Galiciens.

Arrantzaren hiztegia arrantzaren garapenaren lekuko

Euskal Herrian itsas zaletasuna eta lanpidea aski berandu sartu ziren; hiru oztopo nagusi izan ziren hortarako, bata orduko barku txarrentzako itsasoa arriskutsuegi zelako eta bestea itsasertzean vikingoen eta mairuen lapurketak zirela eta bakerik ez zegoelako VIII. (zortzigarren) mendetik XI. eraino euskal itsas bazterra erdi basamortu zelako. Halaxen gure herria luzaro, ingeles eta erromatar zaharren gisa, lurlangile eta artzain herria izan zen. Hone-lan idatzi zuen. J.I. Erkorekak *Itsas arrantza* liburuan.

1. "Ordura arte itsasoaren beldurraz ez zien utzi kostako biztanlei lurrik ikusten ez den lerroa baino urrutiago joaten". (15.orr.)
2. "XII-XIII eta XIV mendeetan asko emendatu zen euskaldunen arrantza baliabideak ustiatzeko gogoia" (16.orr.)

Gaskoiak berriz lehenik itsasoratu ziren zeren beren herri behartsu elkorak merkataritzara eta eskulangintzara behartzen baitzuten. Horrela Baionaz XI. (hamaikagarren) mendean jabetu ziren eta Donostian, Pasaian koloniak kokatu. Honela gure oinarrizko hiztegiak gogoratzen dizkigu nondik etorri diren teknikak eta jendeak..

Atlantiko aldean lehen barkuegile hoberenak gaskoiak izan ziren, horregatik nahiz bizkaieraz, nahiz gipuzkeraz edo lapurteraz, barkugintzaren euskal oinarrizko hiztegian gaskoiera dago. Zertan eta zenbateraino ikusiko dugu. Gero hegoaldeko euskaldunak itsasontzigintzan buruzagitu zirenean, euskaraz izendatu ote zituzten beren eraikuntzak?

Anton Erkorekak, Miguel Laburuk, Rectoranek eta Patri Urkizuk beren idazkietan erakutsi digutenez hamazazpigarren mendeko eta hamazortzigarren mendeko ekaitzek ehundaka arrantzale hil ondoren, ordainak erdal herrietatik, etorri ziren. Hiztegiak, hor ere, sala dezake, beharbada, egoera hori hegoaldeko euskalkietan arrain izenak zenbateraino erromantze edo gaztelaniazko izenak dituzten. Iparraldean berriz euskal jatorrizko izen gehiago ote dago? Bestalde nazioarteko hitzak ere aztertu ditut, ezen Europa guztian zabalduak daudena.

Erabili ditudan iturriak Txomin Agirrerren *Kresala*, eleberria Simin Palayen *Dictionnaire du gascon moderne* eta Azkueren *Diccionario Vasco-español-francés* delakoa gero X. Videgainen «*Enquête sur les noms de poissons*», Iñazio Garmendia Itsas kapitainaren hiztegi ospetsu eta ederra *Diccionario marítimo Vasco-Castellano, Castellano-Vasco*, Tournier Laffitte-ren hiztegia, Rectoranen *Dictionnaire du gascon maritime de Bayonne*, X.L. Franco Granderen *Vocabulario galego-castelan*, Vigo, 1984 eta *Altza Mutilla!* aldizkaria baliagarri izan zaizkit.

Erdi aroko euskaldunak erromatarren gisa, batik bat, lurtar edo lehorrak ziren. Erromatarren eredu harturik E. de Saint-Denis delakoak latin klasikoaz itsas animaliez egin ikerketan eta haren zenbakiekin nire kalkuluen

arauera % 67,7 hitz grekeratik hartuak, maileguak izan ziren, % 17,56 latinezko itzulpena daukate eta sorkuntza % 8,78 izan zen. Zalantzarik gabe euskara sakonki ikertuz kopuru berdinetara hel gintezke. Hauek ikusi eta beste sailetan ikertu ondoren, ez nau batere harritzen teknikekin batean kanpotik etorri bazaizkigu erdal hitzak. Guk ere hitzak itzuli ditugu eta zerrenda batean emango ditut, itzuliak. Gure hiztegiaren oraingotzeak itzulpen asko eskatzen du eta hortarako ofizioan bertan langileak daude. Euskaldunek ikasi zuten XIV eta XV. mendeetan itsasontzigitza, batikbat merkataritza eta guda ontzien egiten penintsulako hoberenak izateraino (Bilbaon, Donostian, Orion, Pasaian) baina arrantza atzean egon zen luzaro itsasertzetako baxurara mugatuz, hor berean aski arrain eta balea zegoelako.

Itsasontzigitzaren hiztegi hortan saiatuko gara gaskoi, gaztelania, frantses eta ipar Europako hitzen bereizten. Hitz erromaniko anitzekin gertatuko da ez dela ziurtasunik ez ote ditugu denek herri-latin zaharretik antziña mailegatu.

1. Itsaso, ontzigitza eta belagintzako hiztegia

Teknika hitzetan sartu baino lehen erran dezagun **untzi/ontzi** hitza oraintxe idatzian nagusitu dena, sarritan arrantzaleen ahoan *barku* dela. Arrantza ontzi gehienek izenak ez dira euskarazkoak (*barku, batel, baxet, lantxa, potin, txanel, txalupa*) ia denak erromanikoak ditugu. Bost erdalduntze mota ikusten dut

1. Latinetik zuzenean hartu eta beharbada halaxen aspaldian sartuak hala nola *bela* eta *masta*.
2. Gaskoiera zaharretik eta oinarrizko hiztegian berrogeien bat ikusiko dugu, hegoaldean, ia iparraldean haina.
3. Eta mailegu sail handiena, batzutan galegoa eta gaztelania ezin bereziz.
4. Batikbat iparraldean frantsesetik berriki edo zaharki hartuak.
5. Europako beste hizkuntzetatik hartuak, alemanera (all.) bretoiera (bret.), eskandinabiera (skan.), ingelera (ingl.), italiara (it.), neerlandera (neer.) batikbat.

Gaskoieraren kasuan duda badago ez ote dugun bi hizkuntzek latin-herriko batetik edan. edo gaskoiera zaharretik ezen badakigu XII. mendean jadanik latinezko *-al* eta *-el* atzizkiak *au* eta *eu* bilakatu zirela gaskoieraz baina ez euskaraz. Halaxen pareka baditugu hitzak:

Euskara	Gaskoiera
alborna	aubour
bokal	bôcau
karel	careu
kordel	cordeu

Okzitanieratik (*gaskoieratik*)

Behin Okzitanieratik urrunenik zen euskalkia bizkaiera ikertuxe nuen. Nafarroan eta Gipuzkoan haina gaskoirik ez da bizitu bizkaieraren eremuan. Hala-

tan ere duela hogeia bat urte Txomin Agirreren *Kresala*, Ondarruko arrantzaileen bizimoldea kontatzen zaigun liburuaren irakurtzean, konturatu nintzen bilketa labur batean *hogeita hamar bat* hitz gaskoieratik mailegatuak zeudela

Orain alfabetoaren ordenean emango ditut baina Garmendiaren hiztegitik hartu beste batzurekin. Hitz bakoitzarentzat beren euskarazko izenkide bat ematen ahaleginduko naiz

Euskera

abaro
abenka
agurten
arlinga bela
arraka
arrada
arrama
arratada
arraun
arriz
atesa-
atoi
baea
baga
barrot (L.)
branka
bruxol (B.G.)
bukal (L.)
karel
erreteila
estai (istai)
gabi
kallabot (L.)
kartola
kopet (L.)
krapin
kudera
pita
popa
tambulet
taket
tolet
tosta
troil (L.)
txapirot/txapitola
txarpanter (L.)
zigor

Gaskoiera

avalo
haben (all. *haupband*)
agoter
arlinga (fr. *relingue*)
arraca
arradar
arrama
arratada
arraun
arris (*rizos*, gazt.)
atesar
atoe
baia (fr. *baille*)
baga
barrot
branca
bròxó (fr. *étambrai*)
bòcau
carel/careu
erretalh
estai (fr. *étai*)
gabi (fr. *hune*)
calhabot (fr. *caillebotis*)
cartol
capet
crapîn
còdeilha
pitral (fr. *bitte*)
pôpa
tambòlet
taquet
tolet
tosta
trolh (fr. *treuil*)
chapelot
charpanter
cinghor

Izenkide

babesleku
abenka
estalpe, kobertizo
relinga (gazt.)
zapi urradura, bela zulo
leundu
adar
zaramiko
arraun
Ø
teinkatu
«atoaje» (gazt.)
kordel saski
uhin
txalupa ezurdura
ontzi aurrea
«fogonadura»
urate
txalupa ertza
zati
estay (gazt. gask.)
«cofa» (gazt.)
keleta
jamuga
kopete
garfio
espadilla
biga
txopa
tamborete, jarleku
adarpiko, zur habetxo
arraunleku
txalupa eserleku
txirindola
tilla
zurgin
zardai

Eleberri batean ez da itxoegiteko hiztegi osoaren agertzea. Oinarritzak bai. Gainera Txomin Agirreren aitaren lanpidea zen zurgintza, beraz harekin ezin hobeki ikasi zituen, hiztegi askotan agertzen diren hitz horiek. Gero zurgintzako hiztegi hortatik apur bat urruntzen denean eta masta eta belen izendatzean euskarak sortu hitzak aurki genetzazke, Garmendiaren hiztegiaren.

Gaztelaniatik edo galegotik (gal.)

Euskara	Gaztelera	Euskara
aingura	ancora	Ø
arpero (L.)	arpero	kako
arria-	arriar	belak bildu
baranda (+ gal.)	barandilla	eskubanda
barku (+gal.)	barco	ontzi/untzi
batel	batel	ontzixka
bragadura	bragadura	abiarazkin?
burel (+gal.)	boya de corcho	
illabe	llave	(lokune)
istillero	astillero	barkugintza
kabalte (+gal.)	caballete	ahuntz
kabila	cabila	Ø
kala	cala	sunda, arrantzalek
kostilla	costilla	saets/saihets
kuberta	cubierta	estalpe
kudasta/korasta	coraste	saihets lema
txanberga	chambersa	botaloi, «boneta» (gazt.)
txanel	chanela	Ø
xabalina	javalina	(arpoi mota)
xistu (L.)	cesto	otarre

Nazioartekoak

Hitz horiek, agian, gaztelertatik frantsesetik etorriak dira eta urrunagotik.

- Ababor** (eusk.) ababor (gask) babor (gazt.), babord (fr.) ingelerazko **back -bord**.
- Batel** (fr. arc., gask. gazt.), **bat/boat** (ingel.) + **-ellus** latina
- Braera** (eusk), braier (gask.), brayer (fr.), braga (gazt.) jatorria?
- Buia** (eusk.), boya (gazt.), bouèe (fr.), buoy (ingel.) jatorria?
- Driza** (eusk.) dris (gask.), drizar (gazt.), drisse (fr.), driss (ingel.)
- Eskota** (eusk.), escota (gask.), escota (gazt.), écoute (fr.) jatorria **skau** (neer.)
- Estribor** (eusk), estribor (gask.), estribor (gazt.) estribord edo tribord (fr.), jatorria **staboard** (ingl.)
- Estropu** (eusk.), estropò (gask.) estrovo (gazt.) estrope (fr) jatorria?
- Foka/fok** (eusk.) fôca (gask.), foco (gazt.), foc (fr.) jatorria **foc** neerlande-raz

- Fregata** (eusk.), fregata (gask.), fregata (gazt.), frigate (engl.) jatorria **fre - gata** (it.)
- Gilla/killia** (eusk.), quilla (gask.), quilla (gazt.), quille (fr.) jatorria **keel** (skand.)
- Gindax** (eusk.), guindaleza (gazt.), guindeau, guinderesse (fr.) jatorria **win - dash** (neer.)
- Goleta** (eusk.), goeleta (gask.), goleta (gazt.), goélette (fr.) **gwelaned** (bret.)
- Lema** (eusk.), leme (galegoz eta gazt. zaharrean) **elhm** (ingl.)
- Masta** (eusk.), masta (gask.), masta (gazt.) mast/mât (fr.), mast (ingl.), jatorria **masta** herri-latina?
- Mesena** (eusk.), misena (gask.), mesena (gazt.), misaine (fr.), jatorria **mezzena** (it.)
- Obenka/abenka** (eusk.), habenc (gask.) obenque (gazt.) hauban (fr.) jatorria **haupband** (al.)
- Txalupa** (eusk.), chalôpa (gask.), chalupa (gazt.), chaloupe (fr.), sloop (ingl.), jatorria **schalupen/sloep** (neer.)
- Txanel** (eusk.), chanela/chalana (gazt.), jatorria **zalana** (ar.)

Gero dudarik gabe ingeleratik hartuak dira itsaontzi askoren izenak Erreinu Batuak XVIII. mendetik goiti itsasoaren nagusi izanki, belaontzi laisterrak egiten jakin zuen hala nola *brik* (ingel. brig) *kotre* (ingel. cutter), *lugre* (ingel. lugger), bai eta gero bapoz zebilan *pakebote* ere (ingel. pake boat).

Frantsesetik ipar Euskal Herrian

Frantsesa berriki eta geroago ta gehiago sartzen da Iparraldean, eskifaiak geroago eta erdaldunago direlako. Gainera Lapurdiko arrantzaleek frantses marinan zerbitzua egiten dute eta azkenik La Rochellen eta beste frantses portuetan ibiliz beren hizkuntza erdalduntzen.

Hona entzuten direnak: *etambota* (fr. étambot) *karlet* (fr. carrelet), *kroka* (fr. croc), *safrana* (fr. safran) *troil* (fr. treuil) *xalû* (fr. chalut), *lujetan* ibili (fr. louvoyer), andarka ibilzearen ordeztu eta beste.

Aspaldian ez digu gaskoierak hitzik eman hizkera hori euskara baino gaizkiago delako. Gainera teknika berriak informatikan bezala ingeleraz heldzen zaizkigu eta hemendik mende erdi hiztegi ikerketan ingelerazko maileguz kronika bat sartu beharko dute.

2. Arrantza teknikak

Hor ere gaskoi gutti, gaztelania asko gure arbaso arrantzale erdaldunekin sartuak, eta ez baztertuak. Izen batzu frantsesetik, neerlandetatik edo ingeleratik etor daitezke. Horiek darakusate XV. mendean hasi eta merkatariontzia Flandrian, Ingalaterran, Normandia eta Hanseko portuetan ibiltzen zirela.

Beste hitz asko, beharbada euskarak gaztelaniari hartu eta gaskoiari eman lizkioke? Erantzuna bagenuke Rectoran euskaldunak Baionako gaskoierari buruz egin ikerketaren ondotik okzitanzaleek beste ikerketa sakonik egin balute.

Euskara	Gaskoiera	Gaztelera	Frantses
abori-	abòri(r)	tropezar	achopper
altura	?	altura	hauturier
aparailu	aparahò	aparejo	engin de pêche
apasta	apasta	raba	appât
arpeu (+gal.)	arpeu	rezón	harpon
barku	barca	barco	barque
baxura	?	bajura	pêche côtière
beita/peita	beita	cebo	boëtte
biberu (haztegi)	?	vivero	vivier
bibre (bizikai)	bibre	viveres	vivres
elast	lest	lastre	lest
entzera	enserra	empalme	épissure
galanda	garlanda	virola	virole
garranga	carlanca	galla	ardillond'hameçon
garnata	?	camada	appât
kainabera	canabera	cañavera	canne à pêche
kala	caladey	cala	sonde ou pêcheurie
kantu	cantò	cantón	secteur de pêche
mantxuba	manseu	banco	banc de poissons
muillatu (L.)	mõilha	fondear	mouiller
palka	palanca	palanca	table à boëtter
pau/paba	pau	palo	perche à filet
sain	sajin	sain	graisse de poisson
senu	senò	red francesa	senne (lat. <i>segena</i>)
soto	sõtó	soto	soute
traina/treina	traina	arrastra	traîne
tretza	tressa	trenza	tresse
triket	triquet	atadura	attache de filet
xabalina	chabelina	jabalina	javeline
zalabardo	salabardon	zalabar	grande èpuiette

Hiztegi euskaldundu beharrez

Euskarak ez dezan español dialekto baten itxura osoa eduki arrantzaleek eta nautika eskolez arduratzen direnak, Ondarruko *Bolo-Bolo* eta *Arranondo* adizkariak Donibane Lohitzune-Ziburuko *Altxa mutilla* aldizkaria lan hortan dabilta. Halaxen ez dakigu erabiliko diren Garmendiaren hiztegioko **abiarazkin** (enbragea), **adaki** (toilet) **adarpiko** (taket), **aurreko masta** (mesena), **aldagailu** (transportadore), **andikalde** (apogeo), **arbelauts** (grafito), **argibide** (klaraboia), **arnasgai tresna** (oxigenoa), **artzain** (foka/poka) **aitxeta** (kroka), **jaurtailu** (katapult), **azta** (elast,

lasta), **barankorde** (kodaste), **bero neurkin** (termometro), **betaurreak** (antiojoak) **bialgailu** (transmetidorea), **bidalkin** (talkie-walkie edo mugikorra), **bizkar** (kubier-ta), **bultzagailutegi** (makineria), **edarrol** (edari kaxa), **elurtegi** (heladera), **eragile** (motor), **igarika** (linia), **lurruntzi** (bapore), **pokatxo** (clin foc), **oboseiren** (sestante), **saka neurkin** (barometro), **udanda** (kala), **uhain** (baga), **zamaontzi** (kargo), **zapi** (bela) **zingo mailak** (kaladuak), **zoka** (karlinga).

3. Arrain izenak eta arrantzaleak

Arrain izenak direla eta Europa mendebalde guztian esan genezake, por-tu batetik bestera izenak aldatzen direla. E. de Saint Denis jaunak frantseses hiru arraintzat, bakoitzarentzar hamar izen ematen ditu eta ondotik idazten etc... Batzutan frantsesez ezin ulertuak gertatzen dira, ezin janezko arraina izendatzen da herri batean beste herri batean oso ona denarekin hitza nahasiz. Arrain izenetan badirudi hegoaldean erdal mailegu gehiago dagoela, lan-gileen jatorri zaharrak eta historiak argitu gaitu, hala nola erdaldun arrantza-leak euskal portuetan aspaldidanik kokatu ziren Horren ulertzeko gogora di-tzagun Anton Erkorekak bere *Análisis de la medicina popular vasca* liburuan idatziak:

«No existe un tipo físico único y uniforme en el núcleo de población de Bermeo, lo que no es de extrañar si se tiene en cuenta que se trata del principal puerto de bajura del Cantábrico con la consiguiente movilidad de su población y las estrechas relaciones que tradicionalmente ha mantenido con otros pueblos del Golfo de Vizcaya e incluso de áreas geográficas más alejadas».

«En esta movilidad de su vecindario no sólo han influido los factores históricos que acabamos de revisar someramente sino también y en gran medida la peligrosidad de la principal actividad económica de la localidad, la pesca.

A este respeto hay que decir que las galernas y los hundimientos de las embarcaciones han supuesto una constante sangría de su población masculina» (op.cit. 28.orr.).

Gero egileak XVIII, XIX, XX. mendeko zenbakiak ematen dizkigu eta ondo-tik *Noticario Bilbainok* idatzia aipatzen:

«El día de Santa Bibiana hubo otra galerna con una gran mortandad de tal envergadura que los pueblos de la costa quedaron casi sin hombres, hasta el punto de tener que ser repoblados por hombres venidos de Santander, Galicia e incluso Andalucía, al casar con las mujeres de los pueblos para no perder las líneas de apellidos los hijos recibieron sólo los apellidos de las madres» (op.cit. 28.orr.).

«El resultado de todos estos factores es una población heterogénea que es percibida incluso por el propio pueblo sobre todo por los habitantes de los caseríos» (29.orr.).

Anton Erkorekak bere gaiera itzuliz beste ekarpen batekin argitu gaitu, baserritarrek arrantzalez diotena aldatuz. Gaur arrantzale gehienak euskal-

dun dira Bermeon, baina ez dituzte arbasoek utzi arrain erdal izenak baztertu. Hona erdal mailegu litezken arrainen zerrenda:

Gaztelaniatik batikbat (38):

Heg/Ipar	Gaztelera	Frantseses	Latin
Abadira (abadio)	abadejo	lieu jaune	<i>Pollachius Polachius</i> L.
Abixoi (abixoin)	abichón?	aubusseau	<i>Atherina</i> sp.
Andeja (antesa)	andeja (corvina)	maigre	<i>Argyrosomus regius</i> (Asso)
Antxoa (idem)	anchoa	anchois	<i>Engraulis encrasicolus</i> L.
Arraia (idem)	raya	raie	<i>Raja species</i> L.
Atun (idem)	atún	thon	<i>Thunnus (Thynnus)</i> L.
Bakalada	bacaladilla	poutasso	<i>Micromesistrus poutassou</i> (Risso)
Barbariña (idem)	barbarín	rouget	<i>Mullus</i> sp.
Berrugata (buriketa)	verrugato	ombrine	<i>Sciena species</i> L.
Bisigu (arroxel)	besugo	rousseau	<i>Pollachius pollachius</i> L.
Dontzella	doncella	girelle	<i>Coris julia</i> L.
Durdoi/durdu	turdo	tourd	<i>Acantholabrus palloni</i> (Risso)
Eglefino	eglefino	aiglefin	<i>Melanogrammus aeglefinus</i> L.
Errebolio (turbot)	rodaballo	turbot	<i>Scophthalmus rhombus</i> L.
Erromero (zoztor)	rémora	rémora	<i>Remora</i> sp L.
Esparloi (n)	esparlón	espadon	<i>Istiophorus platypterus</i> . SH. Nod.
Garda (pirloin)	cannabota	perlon	<i>Hexanchus</i> sp.
Halibut (fletan)	halibut	flétan	<i>Halibut halibut</i>
Korrokoi(n) (lazun)	corcón	mulet	<i>Murgil</i> sp.
Krabarroka (zakail)	cabracho	rascasse	<i>Scorpaena scrofa</i> .
Kraba	cabrilla	pagre, serran	<i>Serranus cabrilla</i> L.
Lantzoi	lanzón	lançon	<i>Ammodites tobianus</i>
Lengorado (zola)	lenguado	sole	<i>Solea vulgaris</i> L.
Loina	loina	hotu, soffie	<i>Chondrostoma toxostoma</i> (Arr.)
Lupi(n)a	lubina	louvine, labre	<i>Dicentratus labrax</i> L.
Lutxoperka	lucioperca	sandre	<i>Lucioperca lucioperca</i> L.
Marrazo	marrajo	taupe de mer	<i>Lamna nasus</i> L.
Mero	mero	mérou	<i>Epinephelus guaza</i> L.
Mielga (melka)	mielga	aiguillat	<i>Squalus</i> sp.
Muxar	mujarra, sargo	sargue	<i>Diplodus</i> sp.
Paneka	faneca	tacaud/merlan	<i>Gadiculus</i> sp.
Salpa (taularin)	salema	saupe	<i>Sarpa salpa</i> L.
Santalamar (L.)	esparlón	espadon	<i>Istiophorus platypterus</i> (Sh.nod)
Sardina	sardina	sardine	<i>Sardina pilchardus</i> L.
Seriola	seriola	seriole	<i>Seriola dumerili</i> (Risso)
Tiburoi (gjbarta)	tiburón	oxyrhine	<i>Isurus oxyrinchus</i> L.
Tintoleta	tintorera	requin bleu	<i>Prionace glauca</i> L.
Txopa	chopa	brême de mer	<i>Spondylissima cantarus</i> L.
Xabiroi (saburdin)	salvariego	vive	<i>Trachinus</i> sp.
Zapatero	zapatero	griset	<i>Cantharus griseus</i> L.

Gaskoieratik? (9) Bastanga (pastanca) *Dasyatis* sp., berdel (berdet), xardina L.? (chardina) *Sardina pilchardus* L., kolaka (colac) *Alosa alosa* L., lanproi (lamprea) *Petromyzon* sp., lemasotin (limosat) *Liza aurata* L., marluza

(merlusa) *Gadus morrhua* L., pirlói (pirlon) *Hexanchus* sp., platurxa (platurcha) *Platichthys flesus* L. Ete guk gaskoierari eman *atun*, *chicharrò*, *lubia*, *sipiró*.

Galegotik? (8) Bokarta (mokarte) *Engraulis encrasicolus* L., escalo (eskailo), garda (garda) *Hexanchus* sp., kastañola (castañola), *Chromis chromis* L., lirpe (lipo), lixa (licha) *Liza aurata* (Risso), pantxo (pancho) *Pagellus bogaravea* L., papardo (papardo), *Brama brama* (Bon.), sarro (sarró) *Diplodus* sp.

Nazioarteko hitz itzuliak (11)

Aingeru goardako, *Squalina squalina* L.; aingeru (tramana B. matran L.) *Myliobatis aquila* L.; arraingorri, *Trigla* sp.; arrain hegalarri, (edo hobeki «txoriarrain») *Exocoetes* sp.; arrainkatu/gatuarrain, *Silurus* sp.; arrain pilotu, *Naucrates ductor* L.; itsas oilar, *Lepidorhombus* sp.; itsas azeri, *Alopias vulpinus* (Bon.); itsas zaldi, *Hipocampus* sp.; itsas zapo (tanbolina, txanboliña), *Lophius* sp.; kitar arrain, *Rhinobatos rhinobatos* L.; zerrarrain *Pristis pectinata* (Latham): *Arrainkatu* al diote «katu» hitza debekatzen duten arrantzaleek.

Marluza hitzaren jatorria

Nafarroa Beheran eta Zuberoan bakalauari marluza erraten zaio. Marluza gaskoiez legatza da. Nahasketa horren argitzeko Eugène Goyhenechek Baionako hiria Erdi Aroan, idatzi duen liburuan argi bat atera dugu. Baionako gaskoiek Bretaniako dukeren gandik kalak eta arrain legortzeko eta gazitzeko lekuak ukan zituzten, halaber Inglaterrakoa baitzen Baionako erregea, Jersey eta Guernesey uhartetan eta han zer arrapatzen zuten orduan, ez **bakalaua** noski, **legatza** baizik, gero gaskoinek iparraldekoiei legatz, gazi, lehortua saltzen zuten *marluza* izenarekin. Geroago arrantzaleek Terranuatik benetako bakalaua ekarri zutenean, barnekaldeko baserritarrek hitz berdina erabili zuten arrain berriarentzat biak gazituak eta legortuak zirelako eta handitasun berdinxkakoak.

Erran beharrik ote da barnekaldean *txardina*, *marluzaz* kanpo ez zutela jendeek itsas arrainik jaten eta ez zaiela haien izenak eskatu behar. Léclusek 1814ean Darrigol barnekaldeko euskaldunaren laguntzarekin bere gramatikako hiztegitxoan egin zuenean baserritarrek garaian eta duela ez aspaldi eza gutzen zituzten arrainen izenak bakarrik ematen ditu: *aingira*, *amuarrain*, *bakalau* eta *txardina*, besterik ez.

Arrain hiztegi sail batean euskara nagusi

Jendeen anatomian erakutsi dudana bezala, arrainen anatomian gaskoiz hitzik ez dago eta besterik oso gutti. Oinarrizko hiztegia euskarazkoa da. Arrainak **egoa/hegalak** baditu (fr. nageoires «igeritakoak», **buztan** (fr. queue, gazt. cola), **zakatz** (fr. branchie, ouïes, gazt. branquias, agallas) **hezur** (fr. arête, gazt. espina).

Latinismo bat hartu dugu nondik ez dakit *ezkata* (lat. *squama*) (cf gazt. *escama*). *Arrab/harba* hitza ere arrain arrautztoki adierazteko erabiltzen denak bere «a» organikoarekin gaskoierazko «raba» gogoratzen digu, nahiz *arrain* hitzarekin lotua liteken ere, nahiz eta Azkuek zion «arriba» hitzetik zetorrela. Batzutan gaskoiek eta euskaldunok, apika, latin iturri berdinetik edan genuke.

IV. Arrantzaleen etsaien izenak: haizeez, uhainez, arkaitzez, hondarrez

Arrantzaleen eta laborarien mintzaira ez da berdina. Barnekaldean eman dezagun Zuberoako Larraine herrixkan edo Gipuzkoako Legazpi herrian, base-rritarren artean, haize guztiek euskarazko izena badute eta kalifikazioa, nondik datozen edo zer dakarten diona. Urrunago emango ditugunak. Egia da ez dela lurginen eta artzainen etsairik handiena haizea, aldiz batzuk arrantzaleak hiltzen dituztela.

Hemeretzigarren menderate arrantzaleek haizeen izendatzeko gaskoierazko eta gaztelerazko hitzak erabiltzen zituzten. Aitor dezagun gure arbaso animistentzat «zerbaiten aipatzeak ekar lezakeela», eta arrantzaleak hortan oraindik ere aski sineskorrak direlarik maileguen beharra badutela. (ik. bestalde batzuentzat barkuan *abadelapez*, *andere*, *demonio*, *katu*, *sorgin* hitzak ez direla erabili behar zoritxarra erakartzen dutelako).


Honela haizeen eta ekaitzen izendatzeko hizkuntza erromanikoetan mailegatu hitzen artean badakigu *enbata*, gaskoierazko Norte dela, *galerna* bretoieratik (*gwalarn*), gaskoierara (*galerna*) eta hortik gurera sartu dela, ipar-ipar ekialdeko mendebal ekaitz haizearen aipatzeko. Ekaitza iragartzen duen haizeari Lapurdin *bruillarta* diote hau ere gaskoieratik. Gazteleratik ere bi aldetako itsas gizonak haize ukaldiei *bidaso* diote, gaztelerazko «*virazón*» hitzetik, iparrekialdetik kiribilka datorren haizea *gatik*, halaber *bendabal*, sartaldetik datorren «vendava» (gazt.). Ez da erraten ontzia «hondatzen» dela «galtzen» dela baiziki.

Ez dakit Donibane eta Ziburun darabilten *tampeta* «frantseskeria» hutsa (tempête) euskararen galtzetik ala beldurraren gaitik hartu den? Barnekaldeko zuberotar eta nafartarrek hitz horrez irri egin nahi badute ez dezatela ahantz berek español hitza *tenpesta* erabiltzen dutela.

Ez dira hortan mugatzen auzo hizkuntzei hartu hitzak. Itxuraz oso erro-manikoak dira hegoaldeko batzuk, baina nik baino xotilago batek aurki lezake horien iturria: *amillena* (sureste), *bandera* (itsas tronba) eta *berdete* (arotzar garaia). Argiago dira, naski, hegoaldeko arrantzaleek darabiltzaten gaztelaniatikako *denborale/denporale*, eta *tormenta*. Axularrek erabilia- lurtarren *ekaitz*, *ephesi*, *orrona* hitzen orde. Haize bereziak dira *uragan/furikan* baita izen mixtoz aipatzen den *traganarru* edo tronba ireslea. Horietan lapurdiera ez da gipuzkera, ez eta zuberera baino garbiago, nahiz urteetan idatzi den benetakoa euskara kostatarra zela eta ziotelarik nahiz bizkaiera, nahiz zuberera euskalki nahasiak zirela.

Ekaitzaren euskaraz ez izendatze horrek ere beste perfrasia dauka erdal mintzairetatik kalkatua, maileguz eta itzulpenez. Jadanik Axularrek darabila *denborra txarra*, latinetikako denbora hitzarekin, gero gaztelaniaren «buen tiempo» itzuliz *denbora ona* ere.

Azkenik Ipar eta hegoaldean meteorología erdal mintzairetan da, nahiz frantsesa, nahiz gaztelania; halaber nautika eskoletan latinismoak ere ikasten dituzte eta eskola horietatik igaro ez direnek XVII. mendean geroztik lapurtarrek eta gipuzkoarrek beren soldado aldia frantses edo espagnol marinaran egiten dute, erdal mailegu «zientifiko» otsezkoak beren hiztegiari sartuz. Jadanik Petiri Etcheberri ziburutarrek Doyharsabal kapitainaren liburua euskaratu eta emendatu zuenean 1667.an: *norte*, *noroeste* eta *noreste* hitzak erabiltzen ditu haizeen eta norabideen aipatzeko. Hona halatan ere artzain eta lur-langileek Gipuzkoan (G.) eta Zuberoan (Z.) nola darabiltzaten haizeen izenak, arrantzalenekin erkatzeko.



Haizeez kanpo arrantzaleak badu beste etsairik *uhina*, *etsai hiltzaileak* Xarles Videgaini ziburutar batek irri egin zion eskaini zionean *uhain* hitza itsasoaren higadura aipatzeko berak *baga* gaskoin hitza darabila, halaber Axularrek, baita itsas ertzetakoari *tiraina* diote gaskoi izenez eta *erresaka*, beste gaskoi hitzez. Hiru *uhinen* ipuina aipatu gabe hor itsasoan erabili behar hitza badago; berdin frantesez *houle* eta gaztelaniaz *oleaje* dena, euskarak gaztelaniaren gainean *olatu* handia eta *olasta* txikia moldatu ditu edo gaskoiereazko *tirain* hitza erabili ere. Egia esan Atlantikoan gaude eta hizkuntzalari batzuk diote denek bretoairi hartu dugula «*hol*». **Uhin** ala **uhain** ez da lurarren arregura. Gainera Axularrek hala erabiltzen duelarik badirudi, marinelen ahoetan, *marea* hitzak, (Gero, 386.orr) aspaldanik **izpera** eta **izgora**, **itsasgora** eta **itsasbehera** hitzen lekua hartu duela.

Bitxi da halere barnekaldean **itsasbazterra** edo itsashegia erraten dugunari- eta halatan dio Geron Axularrek ere XVII. mendean nola marinelek eta itsasaldekoek *kosta* dioten; ulergarria da lapurtarrek eta gipuzkoarrek beren etsai dituzten **arkaitzak**, **atxak** *arroka* gaskoi hitzaren erabiltzea, baita itsas-

gizon gehienek beste gaskoi hitz batez *basa*, erratea ondar meta bati, frantsesez «banc de sable» delakoari baita *grabela* «legar meta» (fr. gravelle, harri txinkor). Hortaz hona zer zion I. Berriatuak *Itsasoa eta ni* liburuan

«Baina ez dezala inork pentsa, gure euskara garbia denik, ez! Guk ez dugu euskaraz egiten hizkuntza lantzeko; behar egiteko eta dirua irabazteko baizk. Guri, euskarak, bizitzeko balio digu. Horregatik probetxu handiz erabiltzen ditugu erbesteko hitz asko eta asko...» (13. orrialdean).

5. Itsasoaz eta arrantzaleez Axularrek dakarrena

Axularrek, *Gero*-an arrain hitzaz kanpo ez digu arrain izenik ematen baina itsas hiztegia bere metaforetan eta alegorietan nasaiki agertzen da. *Geroren* jatorrizko orrialdeak emango ditugu, hogeita hamar oinarrizko hitzetako zerrenda honetan:

aingura (30), *amu* (39, 330), *aparailu* (382), *arrain* (14, 39, 189, 330), *arrantzale* (39, 189, 330), *arrau* (320), *baga* (278), *batel* (5.9), *beita* (330), *bela* (320), *branka* (179), *denbora gaitz* (141, 145, 189), *denbora ona* (22), *ezkata* (14), *galerak* (391), *harea* (75), *hola/ola* (75, 278), *hondargabeko* (5), *hondatu* (44), *itsas-itsaso* (14, 19, 23, 40, 75, 118, 132, 143, 145, 300, 330, 385), *kanabera* (358), *kosta* (23, 75, 145, 341), *leihor* (19, 87, 319), *mareak* (386), *mariñel* (13!, 199), *sable* (75), *sare* (226, 259), *tormenta* (138, 145, 189, 278, 300, 371, 386, 400), *uhin* (75, 278), *untzi* (320), *untzi maestru* (46), *xalupa* (87, 320).

Jakingarria da ekaitzarentzat Axularrek *tormenta* hitza baizik ez derabilala, baina jakingarriena da arrantzaleen bizitzaz diona.

1. *beitaz eta amuaz mintzo:*

«Arrantzaleak egotzen du amua urera beitarekin, zenbait jateko eta bazkarki eta ez arraiñaren urrikarriz, ez hari jatera eman nahiz, zeren bertela ezin engana baitezake eta ez atzeman» (330.orr.).

2. *arraiñaren atzemateko:*

«Arrantzaleak desiratzen du ur uherra arraiñaren atzemateko (189.orr.).

3. *untziaren hondatzea:*

«Untzia betha dadinean hondatzen eta ondorutzen da, orduan estaltzen da» (77.orr.).

«Untzia galduz geroz zer erremedio izanen du mariñelak salbatzeko (341.orr.).

4. *ekaitzaren metafora:*

«Heken holek, uhinek, bagek eta tormentek hanbat badira ezen gainez egiten baitute».

Bitxi da nola Lapurdiko itsasbazterrean bizi zen Axularrek ez duela sekulan *barku* hitza erabiltzen beti *untzi* eta gaurko Donibandarrantzaleek X.

Videgaini erran zioten untziak zirela janarien eta edarien edukitzekoak. Hala-ber *kosta* erabili arren **itsas bazterra** ere darabila Axularrek. Itsasoaren higidurak direla eta jadanik *marea* ikusi dugu, baina txikiagoentzat **uhin**, *baga* eta *hola* darabiltza. Azken hau «h»ekin, agian bretoierazko «hol» etik hartua, frantsesak *houle* hartu dion legez.

Ondorioz

Norabide batzuk aztertu eta erakutsi ditugu, gaia azkeneraino hurbildik ere ez ustiratu. Ikusi dugu euskaldun arrantzaleentzat zer harreman zailak, zer gora gutti eta behera asko ezagutu duten gure arrantzaleek merkatarari eta gudari ontzietan zebiltzanak hobekixe zeudelarik, besteek tresneria txiki batekin ekaitzei nagusitu behar bizirik ateratzeko. Halere Atlantiko bazter hortan XVII. eta XVIII. mendeko konfliktuok bideak moztu baino lehen, itsasgizonek herri batetik bestera elkarrekin ikasi zuten, hartakoz euskaldunek beren hiztegian gorde dituzte teknikekin etorri hitzak Eskandinabiatik Galiziarainoko hitzak. Euskaldunentzat Londres Exeter, Portsmouth, Bruga, Antwerpen edo Hamburg, Lisboa, Bartzelona edo Genoba bezain ezagunak izan dira itsasontzientzat, arrantzaleentzat ez. Halatan ere Beste biderik hartuko dute arraina eta balea Bizkaiko itsasoan galduko denean Feroeraino Groenlandiaraino Terranuaraino joanaz eta orain Mozanbike aldera.

Argigarria da Rafael Agirre-k *El Cantábrico entre la vela y el vapor*, liburuan idatzi zuena:

«En efecto existe lo que se podría llamar una plataforma de cultura marítima pesquera común entre Galicia y las Vascongadas

(...) La conformación de la nasa, tradiciones del bichero, de las liñas con anzuelos, de los poteros para el calamar y el empleo de éstas y el conocimiento de los tresmalles asimismo como llamar los remos con estrobos, tirante del tolete son un ejemplo del patrimonio común» (op. cit. 41. orr.).

Pentsatzen dut argiki erakutsi dudala aurkikuntza horietarik batzuk Baionatik ateratu direla, beste batzuk Bretania, Normandia, Flandriatik gaskoinen bidez gurean sartu, beraz ez dela Galizia eta Euskal Herriaren arteko herrien kultura bakarrik baina Atlantiko itsasbazter guztian aurkitzen dena eta Ipar itsasokoarekin lotua ere. Euskaldun arbasoek teknikak hobetu zituzten atlantiko aldeko garaienatarik izateraino, baina ez zuten, hortarako, gure egunak arte, gure aintzinakoek euskara gehiegi erabili. Orain, hortarako kontzientzia delako, gure gauzen euskaraz izendatzeko indarra ematen da.

Bai, lehen arrantzaren garapena merkataritza baino mantsoago joan da bai, ez baitzen urrunegi joan beharrik edo teknikalariet diotenez aski zen baxuran ibiltzea, itsasbazterra ikusten zen lekua baino urrunago ez joanaz. Orain erran genezake itsasontziek merkataritza ontzietan ez dutela zorrik erositasunean, eta batzutan luzetasunean atunketara doatzenean batikbat.

Bai, arrain izen pilla erdaraz izendatzen ditugu, erromatarrek grekerarekin egiten zuten bezala, arrazoin nagusia XVII. mendean hasirik hainbeste galego eta erdal arrantzale kokatu baita Euskal Herrian gu bezain euskaldun bilakatu ondokoak; orain atunetan eskifai gehiena beltza da, alturan galegoa, euskaldunak gehiago jarraitzen dute baxuran.

Bai *altura*, *bajura* hitzak erabili ditut, nahiz arrantzaleek uhin hitzarekin bezala egiten duten, ez dituztela erabiltzen. Eurek tekniken arabera bereizten dituzte **arrastariak**, **liñalariak** eta beste edo arraiñaren arabera **atunketariak**, **txardinketariak** eta holako. Gero Bermeoko alkate den Goihenetxek eta Juan Apraiz kapitainak erran didate ez dela bakarrik berba arrazoia, adigaiak, kontzeptuak ez direla berdinak Bruselasko bulegoetan eta Euskal Herriko portuetan. Europako Iparralde itsasoko arrantza eredu da eta ez Atlantikokoa eta Europatik bidalitako gomendioak Bermeoko arrantzaleentzat ez dira argiago ez UZEI ek egin itzulpenean, ez eta gaztelaniaz.

Gure hizkuntza ez da beste bat baino nahasiago. Gure mintzairak erakusten digu gure arrantzale eta itsasjentea irekia dela. Antzinadanik Europa guztian ibilia. Europako hizkuntza anitzetatik hartu dugula? Egun batez beharbada lehengo belaontzi hiztegian bezala ingelerazko maileguak sartuko zaizkigu, Oraindik badugu S.O.S. *Save Our Soul*. arauz gure mintzairaren salbatzeko erabiliko ez duguna.

Zer behar duen Euskal Herriko arrantzak? Lehenik eta bat arrainak, bigarrenik itsaso garbiagoa ezen ozeanoaren erdian, ertzetan baino petroleo gehiago igeri dabil, ahaztu gabe itsasondoan eta urartean igerikan, arrain sardenen ordez, dabilizan platiskoak, hirurgarrenik gizonak haien arrapatzeko eta ahabada euskaldun izan ditezen, laurgarrenik itsasontzi onak eta ziurrak. Halabiz. eta halabedi.

BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, Rafael. *El Cantábrico entre la vela y el vapor*, Txertoa arg. Donostia, 1994.
- AZKUE, R.M. de. *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia, 1984.
- BARANDIARAN, Felipe. *Comunidad de pescadores de Bajura de Pasajes de San Juan*, Donostia, 1995.
- BARANDIARAN, Felipe. «Sobre la inmigración gallega en Trincherpe», 1956. *Vigo Cuadernos* 41, 1956.
- BERRIATUA, Imanol. *Itsasoa eta ni*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1981.
- ERKOREKA BARRENA, Anton. *Análisis de la medicina popular vasca* (Bermeo), Labayru ikastetxea, Bilbao, 1985.
- ERKOREKA, Jon Iñaki. *Itsas arrantza*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1998.

Peillen, Txomin: Gure hiztegiak salatzen dituen itsasoko teknika iturriak

- FRANCO GRANDE, X.L. *Diccionario galego-castelan*, Ed. Galaxia, Vigo, 1984.
- GARMENDIA BERASATEGUI, Ignacio. *Diccionario Marítimo ilustrado. Irudidun itsas izte - gia*, Castellano-vasco-Vasco-Castellano Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1970.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Euskal Herriko etnografia eta historia*, lehen tomoa, Donostia, 1997.
- GOYHENECHÉ, Eugène. *Bayonne et la région bayonnaise du XI^e au XV^e siècle*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1990.
- LABURU, M. «Jalones en la historia de la arquitectura naval» in *Itsasoa* Donostia, Etor, 1986, 245-280. orr.
- LHANDE, Pierre. *Dictionnaire Basque-Français*, Beauchesne, Paris 1939.
- PEILLEN, Txomin. «Emprunts lexicaux à l'occitan: biscainien, bas-navarrais, labourdin, souletin». in *Actes du Congrès International d'Etudes Occitanes*, Gasteiz, 1993.
- RECTORAN, Pierre. *Le Gascon maritime de Bayonne*, Reprint Ed. Harriet Curutchet, Hélette, 1996.
- SAINT-DENIS, E. de. *Le vocabulaire des animaux marins en latin classique*, Ed. Klincksieck, Paris, 1947.
- TOURNIER, André; LAFITTE, Pierre. *Lexique français-Basque*, Herria, Baiona, 1953.
- URKIZU, Patrizio. *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Saioa, Durangoko Udala arg., Durango, 1987.
- VIDEGAIN, X. «Enquête lexicale en domaine basque à Ciboure» pour *l'Atlas Linguistique des Côtes de l'Atlantique* in Cuadernos Hizkuntza eta Literatura, Eusko-Ikaskuntza 10, 1990.
- VILLASANTE, Luis de. *Axularren hiztegia*, Jakin arg. Arantzazu, 1973.
- (elkarren artean) *El país y el mar a través de la Historia* Untzimuseo arg., Donostia 1993.